

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****San Fausto 2017ko jaietako kartel lehiaketaren oinarri arutzaileak**

Alkatearen 2017ko martxoaren 17ko 1028/2016 eta 1033/2016 dekretuen bidez onartu egin dira 2016ko San Fausto jaietako kartel lehiaketaren oinarri arutzaileak («senior» eta «txiki» kategoriak):

BASAURIKO UDALAK 2017KO SAN FAUSTOKO HERRI-JAIEN KARTELA AUKERATZEKO, ANTOLATUTAKO LEHIAKETAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

1. Lanak bastidorearen gainean edo luma-kartoian muntatuak aurkeztuko dira eta ez dute beirarik izango. Lanak 70 cm-ko altuera eta 50 cm-ko zabalera izango du.

Gainera, egileak lanaren kopiarekin CD bat erantsiko du formatu digitalean 300 ppp-ko gutxieneko bereizmenarekin eta 50 x 70 cm-ko tamainarekin.

2. Gaia artistak hautatuko du, baina iragarri nahi diren jaiekin harremana izan behar du. Lanean ezingo da jarrera homofoboaren, xenofobaren, ez hizkera, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, eta ezta ere, edari alkoholiko eta tabakoaren erreferentziarik egin. Hori guztia Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin bat. Ildo horri jarraiki, Epaimahai kalifikatzaileak araudiaren kontra doazen kartelak lehiaketatik kanpo utz ditzake.

3. Kartelek Basauriko logoa eta honako inskribapena erantsia izango dute:

«Basauriko jaiak 2017 San Fausto urriak 7—15 octubre»

4. Lanak originalak izango dira.

5. Epaimahaiak jaiak iragartzeko hautatu duen kartelaren egileari 1.500,00 euroko saria emango zaio eta 300,00 euroko akzesita udalerriko diseinurik onenari. (Aurrekontuko partida: 2017 72.3382.48099-T. A. familientzat. jaiak)

Sari horiek ezingo dira metatu eta lege zedatutako atxikipenak izango dituzte. Indarreko legeria betez, sariei PFEZren atxikipena aplikatuko zaie.

6. Epaimahaiak lehiaketa hutsik uzteko ahalmena izango du, bere iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikoa lortzen ez badute, baita ustekabeko edota ohiz kanpoko gorabeherak ez egitea gomendatzen badute ere.

7. Lanak Herritarren Informaziorako Udal Bulegoan aurkeztuko dira lanegunetan 8:00etatik 14:00etara, deialdian ezartzen den epean.

8. Kartelen atzeko aldean eta erantsiko den gutunazalaren kanpoaldean lanaren leloa idatziko da. Aipatu gutunazalaren barruko aldean egilearen izena, abizenak, helbidea eta telefonoa azalduko dira.

9. Epaimahaia honako kideek osatuko dute:

Burua: Alkate jauna edota eskuordetutako zinegotzia.

Epaimahaikideak:

— Alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana.

— Herriko Taldeak-en bi ordezkari.

— 2 artista edo teknikari arloan.

Idazkaria: Kultura Saileko udal-funtzionario bat.

10. Epaimahaia 2017ko irailaren 8an 11:00etan Udaletxean bilduko da, kartel irabazlea eta akzesita aukeratzeko. Emaizta apelaezina izango da.

11. Aurkeztutako lan bakoitzeko agiri bat emango da eta kartela saritua izan ez bada, erretiratzeko aukera eskainiko du.



12. Lan guztiak, kartel irabazleak eta aurkeztutako gainerako kartelak, Basozelai Hiri Zentroan erakutsiko dira urriaren 6tik 20ra bitartean.

13. Saritutako kartelaren egileak ordainsaririk jaso gabe edozein xehetasun edo kolore aldatu beharko du, Epaimahaiak helburua betetzeko hobetzat jotzen badu.

14. Saritutako kartela Udalaren jabetzakoa izatera pasako da eta komeni zaion moduan eta unean erreproduzitzeko eta banatzeko aukera izango du.

15. Erakusketa amaitzen denean, lehiaketan aurkeztu eta sarituak izan ez diren lanak hilabeteko epean Basozelai Hiri Zentroko erakusketa-aretoan erretira daitezke. Epea 2017ko urriaren 30ean hasiko da zenbatzen. Data horretatik aurrera Udala kontserbazioaz ez da arduradun izango. Udalak materialak garraiatu, manipulatu, erakutsi, bildu edo antzekoak egiten direnean izandako kalteen gainean ez du erantzukizunik izango.

16. Lehiaketa honetan parte hartuz gero oinarriak oso-osorik onartzen dira.

2017KO SAN FAUSTOKO JAIETARAKO «KARTEL TXIKI LEHIAKETARAKO OINARRI ARAUTZAILEAK»

1. Egile bakoitzak, gehienez ere, lan bat aurkeztu ahal izango du.

2. Kartelak DIN A-3 neurrikoak (297 X 210) izango dira.

3. Lehiaketara Basauriko Jaiak berezko dituzten gai eta sinboloak aurkeztuko dira. Lanean ezingo da jarrera homofoboaren, xenofobaren, ez hizkera, irudi edo eduki sexistaren publizitatea edo horiek bultzatzea bilatuko duen erreferentziarik egin, eta ezta ere, edari alkoholiko eta tabakoaren erreferentziarik egin. Hori guztia Udalak gaiari buruz onartutako araudiarekin bat. Ildo horri jarraiki, Epaimahai kalifikatzaileak araudiaren kontra doazen kartelak lehiaketatik kanpo utz ditzake.

Parte hartu ahal izango dute LH1 eta DBH1 arteko Basauriko ume guztiak. Ezinbestekoa izango da lanak originalak izatea eta ez izatea jadanik argitaratutako argazki, kartel edo marrazki baten edota horien zati baten kopia.

4. Kategoria bi bereziko dira:

— «Txikiak»: LH1 eta LH4 bitarteko ikasleentzat.

— «Gazteak»: LH5 eta DBH1 bitarteko ikasleentzat.

5. Kategoria bakoitzerako 50 kartel baino gehiago aurkezten badira, Zoroak kuadrillak lehen aukeraketa bat egingo du, hau da, Udalean epaimahaiak azken bozketa egiteko 50 marrazki aurre-hautatuko ditu, kategoriako.

6. Kartelak egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira. Atzealdean leloa idatziko zaie, «txikiak» edo «gazteak» berebarekin batera. Kartelarekin batera itxitako gutun-azala ere eramango da, kanpoaldean kartelaren lelo bera eta egilearen adina eta ikasturtea adierazita. Gutun-azalaren barruan egilearen datu hauek jasotzen dituen oharra sartuko da: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta zein ikastetxe eta ikasturtetan dagoen.

Edozelan ere, kartelean honako hau idatzi beharko da:

«Basauriko jaiak 2017 San Fausto urriak 7-15 octubre»

7. Epaimahai kalifikatzailea jarraian adierazitako moduan eratuko da:

Epaimahaiburua: Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotzia.

Epaimahaikideak:

— Alderdi bakoitzeko ordezkari bat.

— Herriko Taldeak-en ordezkari bi.

— Zoroak-en ordezkari bi.

— Artista edo arloko teknikari bi.

Idazkaria: udal langile bat.



8. Epaimahai Kalifikatzailea udaletxean batuko da 2017ko irailaren 8an, kategoria bakoitzeko kartel irabazlea hautatzeko. Hala egingo dute kartel seniorra aukeratu eta gero.

9. Epaimahaiak saria eman gabe utzi ahal izango du, aurkeztutako lanek gutxieneko maila artistikoa ez dutela jotzen badu, edota ikusten badu lehiaketa ez dela egin behar, aurreikusi gabeko inguruabarrak edo inguruabar bereziak direla eta.

10. Automatikoki baztertuak izango dira oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten lanak.

11. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta ezagutzera emango da ohiko komunikabideak erabilita.

12. Sari nagusi bakarra banatuko da kategoria bakoitzean, hauxe:

«Gazteak» kategoria

Basauri Kirolakeko igerilekuan ordubeteko egonaldia eta, gero, askaria kafetegian, gehienez ere 15 umerentzat —instalazioak libre dauden egun batean, noski—. Eta Basauriko Indoor Multiabentura Parkerako lau sarrera, bi orduz bertan jarduteko.

Zoroak kuadrillak 100 euro-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.

«Txikiak» kategoria

Social Antzokiko haur-ikuskizunetarako lau sarrera, eta zinemarako beste lau sarrera banatuko dira.

Zoroak kuadrillak 50 euro-ko txartela emango du, Basauriko dendetan gastatzeko.

13. 20 lanik onenak Ibaigane Kultur Etxean egongo dira ikusgai, urriaren 6tik 20ra bitartean (10 lan kategoria bakoitzeko).

14. Epaimahaiak uste badu saritutako karteletan xehetasun edo koloreren bat aldatu behar dela, kartelak bere xedea hobeto bete dezan, egileek hala egin beharko dute.

15. Udala izango da saritutako kartelen jabea eta, beraz, horiek erreproduzitu eta banatu ahal izango ditu, egoki deritzon une eta moduan. Hala eta guztiz, «Gazteak» kategoriako kartel irabazlea baino ez da agertuko, San Faustoko Jaietan haur eta gazteei zuzendutako ekitaldiak jasotzen dituzten egitarauetan.

16. Lanak Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoan aurkeztu ahal izango dira, lanegunetan, 9:00-13:00 bitartean, txapelketarako deialdian adierazitako epean. Bestela, haurrek nahi badute, ikastetxean bertan entregatu ahal izango dituzte marrazkiak. Zoroak kuadrillakoak horiek batu, eta HIABen aurkeztuko dituzte, deialdian adierazitako epea agortu aurretik.

17. Lan bakoitza aurkeztu izanaren egiaztagiria emango da, kartela bueltan jaso ahal izateko —baldin eta saritua izan ez bada—. Ez da hala egingo, ordea, Zoroak kuadrillakoek ikastetxeetan jasotako marrazkiekin.

18. Saria jaso ez duten lanak Kultura-Politika eta Euskara Arloan jaso ahal izango dira hilabeteko epean, 2017ko urriaren 30etik aurrera. Udala ez da izango aurkeztutako lanek garraiatzean, maneiatzean, erakusgai jartzean, biltegiatzean edo antzekoetan jasan ditzaketen kalteen erantzule.

19. Lehiaketan parte hartzeak ekarriko du oinarri hauek goitik behera onartzea.

Basaurin, 2017ko apirilaren 24an.—Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta